

HIZKUNTZ POLITIKARAKO IDAZKARITZA
SECRETARIA DE POLITICA LINGÜÍSTICA



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

€.I.F.€.

Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION
HIZKUNTZ POLITIKARAKO IDAZKARITZA
SECRETARIA DE POLITICA LINGÜÍSTICA

E.I.F.€.

**Euskararen Irakaskuntza:
Faktoreen Eragina**



Vitoria-Gasteiz, 1986
EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IBERKETA SAIA
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION
HEZKUNTZ POLITIKARAKO IDAZKARITZA
SECRETARIA DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

E.I.F.E.

Euskararen Irakasgintza

Faktoreen Eragina

© Hizkuntz Politikarako Idazkaritza eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila


Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukearen kalea, 2 - 01011. Gasteiz. Euskal Herria

I.S.B.N.: 84-7542-286-1

Legezko Gordailua: VI-265/86

Lehen Argitaraldia: 1986ko Maiatza

Inprimatzailea: Gráficas Santamaría, S.A. - Vitoria-Gazteiz
Becolarra, 4 - Pabellón 15-A - (Ali-Gobeo)
01010 - Vitoria



EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA
EUSKO ARGARIA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	7
2. EUSKAL IRAKASKUNTZAREN IKUSPEGI OROKORRA	9
3. IKERKETAREN AZALPENA.....	10
4. TESTEN EMAITZAK.....	15
5. D EREDUA	19
6. A EREDUA	23
7. B EREDUA	26
8. LABURPENA.....	30

EGILEAK:

SIADeco ikerketa elkarteko Juan Jose Gabiña, Ramon Gorostidi, Ramon Iurretagoiena.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Ibon Olaziregi, Josu Sierra.

KOLABORATZAILEAK:

E.H.U.-ko Kalkulu Zentruko Jose Miguel Rincón.

E.H.U.-ko Sarrikoko Fakultateko Karmele Fernandez, Jose Maria Piris.

SIADeco-ko Mikel Irasuegi.

ESKERTZEKOAK dira baita ere Ikerketaren diseinuan, Estatistikan, Psikometrian eta abarretan lagundu duten pertsonak, hala nola Mikel Zalbide, Antton Kaifer, Anjeles Iztueta, Iñaki Dendaluze, Mari Karmen Garmendia, Gloria Perez eta orobat kanpo-lana egin duten inkestagileak (Irakasle Eskoletako eta Zorroagako Psikologia ikasleak), lagineko ikasle-irakasleak, eta erakunde desberdinetan kolaboratu duten pertsona guztiak.

1.- SARRERA

1.1 Orain kaleratzen dugun lan honetan, irakaskuntza sistemaren euskalduntzearen lehenengo emaitzak aurkezten ditugu.

Euskararen errekupeziarako itxaropen guztiak eskolan jarri dituztenentzat emaitza urriak dira behar bada. Eskola eta ikasteredu elebidunak gertutik ezagutzen dituztenentzat ez du gauza berririk eskeintzen. Susmoak egiaztatzen direla datu objetiboekin esango genuke. Guztiontzat erreferentzi puntu dela esaten badugu ez dugu uste oker gabiltzanik.

EIFE ez da ikasteredu baten edo besteren balioaren froga. EIFE hezkuntz sistema osoaren euskalduntzearen lehenengo laupabost urtetako ahaleginaren muestra bat besterik ez da. Urte jakin batzuetan egoera eta baliapide ezagun batzuekin lorturiko emaitza. EIFE-ko emaitzak ezin daitezke behin betirako jeneralizatu baina nahi ta nahiez kontutan hartzekoak dira.

1.2 Zer lortu da hezkuntz sistema osoa, Unibertsitatea izan ezik, euskalduntze prozesuan murgilduaz?

1978/79 ikastaroan -ikastolak kontuan izan gabe- euskara ez zen eskola hizkuntza. Euskal Herriko eskola guztiz elebakarra zen (erdaldun hutsa). Oinarri Heziketa mailako Ikastetxe publikoetan irakasleetako % 5ak bakarrik zekien euskaraz hitzegiten. Irakaslegoaren multzo haundiena kanpotarra zen.

Gaur egun eskolome guztiek dakite euskara Euskal Herriko berarizko hizkuntza dela; beste edozein hizkuntza bezala, eskolarako hizkuntza; euskal ume gehienek, bestalde, euskararen aldeko jarrera dute.

Irakaslego guztia ere ohartu da euskal eskolaren ezaugarri nagusia euskara dela. Prestakuntza beharra nabaritu du eta multzo handi bat murgildu da euskalduntze-alfabetatze eta hizkuntz didaktikaren hobetze ahaleginetan.

Gurasoak bestalde, geroz eta euskalduntze eskaera sendoagoak egiten dizkio eskolari, euskalgintzan protagonismo eta ardura izugarria ezarriaz.

Eskolako zeregina goitik behera ari da aldatzen euskararen eragina dela medio. Eredu elebiduna duen eskola elebakarra baino aberatsagoa da eta aberastasun horren eragina euskararen ez ezik beste irakaskuntza guztian ari da poliki poliki nabaritzen.

Baina ez dugu lortu oraindik ikasteredu ezberdinekin lortu nahi dugun euskarazko gaitasuna eskolomeetan. Lan honetan ageri denez, A ereduan jardun duten haurrek euskararen jakite maila eskasa lortu dute oraindik, B eredukoek ere ez dute ikasi eskola giro elebidun horretan eskura daitekeen guztia; azkenik, D eredukoetan, jatorriz euskaldunak izanik euskara badakitela frogatzearekin ez dugu gauza haundirik adierazten.

Nolanahi ere eskolaren eraginez lortzen den jakite maila areagotu egiten da famili giroan euskara dagoenean.

Hau guztiau batzurentzat ezer gutxi izango da. Hezkuntza mundua ezagutzen duen edonorentzat ordea ez dugu uste horrela izango denik. Hezkuntza poliki aldatzen den egitura da. Edozein giza

aldaketaren atzetik joaten da beti hezkuntza. Euskalgintzan aintzindari egin nahi izan dugu irakaskuntza. Eta hori ezinezkoa da. Gizartea eta eskola elkarrekin euskaldunduko dira edo ez dira euskaldunduko.

1.3 Gure ustez lan honen ondorio nagusia zerak izan behar luke: eskolaren eraginari eta euskalgintzan jartzen diren baliapideei etekin hobek ateratzeko bideak irekitzeko. Orokorki euskalgintza arloko azterketa bultzatzea. Esate baterako helburuen azterketa ezinbestekoa iruditzen zaigu. Ezagueran baino erabileraren gehitzean jarri behar da ikusmira. Eta horren arabera aztertu ikasteredu, ikastegoera, ikastetxe eta ikasgela bakoitzeko xedeak eta plangintzak.

Hizkuntza bat zer den edo hobeto esanda hizkuntz jokabidearen legeak eta euskararenak hobeto ezagutuaz euskararen irakaskuntzarako metodologia eta baliapide egokiagoak sortu behar dira. Arlo honetan, behar haundiak daukagu.

Emaitzak eta datuak kaleratzearekin bestalde euskalgintzan hainbeste ahalegin egin duen gizarteari zor zaion ezaguera ematen diogu. Uste, amets eta susmo giroari datu zehatzak eskeini behar zaizkio nahiz eta oso gustagarriak ez izan. Zentzu honetan EIFE ahalegin handi bat izan da.

Emaitzak eta emaitzen arrazoiak ezagutzeak emaitzen hobetzea dakar berekin, batez ere harreman zuzena dutenengana iristen badira. Ereduz ereduko emaitza hauek ikastetxe eta ikasgela mailara xehetu beharko lirateke ahaleginak egin dituztenek euren fruituak ikus ditzaten eta jarraitzeko gogoak eta geroz eta bide egokiagoak bila ditzagun.

Euskal eskolaren euskalduntze ahaleginen EIFE lagungarri izango delakoan gaude. Hala izan dadila!

Itziar Idiazabal

OINARRIZKO IRAKASKUNTZAREN ZUZENDARIA

2.- EUSKAL IRAKASKUNTZAREN IKUSPEGI OROKORRA

Euskal Herriko Autonomi Estatutuak (1979) dioenez euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialaren maila izango du gaztelaniarekin batean.

Ofizialkidetasun hori Euskararen Erabilera Normaltzeko Oinarri Legean (1982) zehaztu zuen Eusko Legebiltzarrak.

Orduz gero Hezkuntza eta Kultura Sailak Elebitasun Dekretua (1983), Elebitasun Agindua (1983) eta beste hainbat Agindu eta Ebazpen eman ditu argitara, euskarari irakasmunduan behar zuen lekua emateko asmoz.

Euskara, ondorioz, derrigorrezko irakasgai bihurtu da ikastetxeetan eta irakasteredu desberdinei ordurarte zutena baino lege marko egokiagoa eman zaie. Hona hemen Eskolaurretik hasita aplikatzen diren irakastereduen deskribapen laburra:

A EREDUA: irakasgai guztiak —euskara izan ezik— oinarriz gaztelaniaz lantzen dira. Euskara irakasgai eran beste edozein gai bezala ematen da.

B EREDUA: Bai gaztelania eta bai euskara, biak beste irakasgaiak lantzeko erabiltzen diren hizkuntzak dira, biak irakasgai moduan ere lantzen direlarik. Praktikan era askotara aplikatzen da eredu hau, euskararen portzentaia aldakorra izanik.

D EREDUA: irakasgai guztiak —gaztelania izan ezik— oinarriz euskaraz lantzen dira.

A eta B ereduak jatorriz erdaldunak diren haurrentzat pentsaturik daude eta urte gutxiko esperientzia dute oraindik euskal irakasmunduan. 1979an hasi zen gutxi gora behera A eredu, eta handik gutxira B eredu. Aurreko irakaskuntza modua, euskararik gabekoa, ordezkatu dute bi horiek.

D eredu haur euskaldunentzat sortu zen hasieran, baina gero erdaldun ikaslegoa ere onartu izan du. Eredu honek urte gehiagoko historia du, ikastoletan mamitua: 1960tik aurrera hasi zen indartzen eta zabaltzen mugimendu hori. Gaur egun ikastetxe publiko eta pribatuetara ere zabaltzen hasi da poliki-poliki.

Gorago aipatu den Elebitasun Dekretuak dioenez, Hezkuntza eta Kultura Sailak, Hizkuntz Politikarako Idazkaritzarekin elkarlanean, irakaskuntza elebidunaren ereduaren aplikazioan jasotzen diren emaitzen kontrolerako beharrezko ikerketabideak ezarriko ditu.

Eginkizun hori betetzeko egiten diren saioren artean koka daiteke E.I.F.E. (Euskararen Irakaskuntza Faktoreen Eragina) ikerketa ere. Ikerketa egiteko datuak 1983-84 ikasturtean jaso zirenez gero, bistan da A eta B ereduak finkatze bidean zeudela oraindik. Baina inportantea zen garai honetako datuak ezagutzea: lehen emaitzak zirelako alde batetik, eta hurrengo jasoketarako erreferentzi puntua izango direlako bestetik.

Ikasturte horretan eta OHOk 5.mailan (10 urtekoak), haur gehienak A ereduaren zeuden, %67 hain zuzen; B ereduaren %4; D ereduaren %15 eta %14 euskararen irakaskuntzarik gabe zegoen. OHOk 2. mailan (7 urtekoak) %64 A ereduaren zegoen, %13 B ereduaren, %18 D ereduaren eta %5 euskararen irakaskuntzarik gabe.

3.- IKERKETAREN AZALPENA

3.1 LANAREN ERAGILEAK ETA EGILEAK

Ikerlan hau Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bultzatu dute, euskararen irakaskuntzan (eskolan) eragiten duten zenbait faktore aztertu asmoz.

EIFE proiektua, SIADECO Sozio-Ekonomi Ikerketa Elkartearen eta Hezkuntza Sailordetzako Teknikarien arteko elkarlanean burutu da batipat, Euskal Herriko Unibertsitateko eta beste zenbait lekutako aholkulari batzuren laguntzarekin.

Alde batetik, Inkesta soziolinguistikoa, lagina eta zenbait datu-analisiren ardurua SIADECOk eraman du. Bestetik Hizkuntz Testak eta beste datu-analisi batzu Hezkuntza Sailordetzari zor zaizkio. Euskal Herriko Unibertsitateko kalkulu Zentroak eraman du tratamendu informatikoa eta Sarrrikoko Estatistika Departamentuak aholkularitza estatistikoa.

3.2 XEDEAK

- a) Irakaskuntza elebidunaren 3 ereduetan (A,B,D) OHOk 2. eta 5. mailako hurrek duten euskararen eta gatzelaniaren ezaguera maila neurtzea.
- b) Euskararen irakaskuntzan zerikusirik duen zenbait faktore psikolinguistiko, soziolinguistiko, pedagogiko, etab. aztertzea, beti ere goian aipaturiko populazio horri dagokionez.
- c) Goiko bi puntuok ikertzearen ondorioz, 1983-84 ikasturtean, irakasistemaren hizkuntz egoerari buruzko datu koantitatibo eta koalitativo zehatzak eskuratzea.
- d) Honelako ikerketetarako beharrezko diren metodologia eta baliabideak garatzea.
- e) Hizkuntz gaitasuna neurtzeko eta ebaluatzeko tresnak sortu eta garatzea.

3.3 IKERKETAREN DESKRIBAPENA

a) Lagina

Laginarekin estratifikazioa hiru parametro nagusiren arabera egingo da:

IRAKASMAILA:

- O.H.O.-ko 2. maila (7-8 urteko haurrak)
- O.H.O.-ko 5. maila (10-11 urteko haurrak)

IRAKASTEREDUA:

A eredia: nagusiki gaztelaniaz

B eredia: bietan

D eredia: nagusiki euskaraz

ZONA SOZIOLINGUISTIKOA:

Udalerriak 5 zonatan banatu dira, bertako pertsona euskaldunen portzentaiaren arabera:

- 1. ZONA..... % 1- 10
- 2. ZONA..... % 11- 30
- 3. ZONA..... % 31- 50
- 4. ZONA..... % 51- 70
- 5. ZONA..... % 71-100

Askotan Udalerri barnean ere zona soziolinguistiko desberdinak izaten dira, baina, bistan denez, horiek ezin izan dira kontuan hartu.

Aztertu diren ikasle-taldeak, beraz, hauetxek dira:

IRAKASTEREDUA

	A	B	D
OHO 2	2.A	2.B	2.D
OHO 5	5.A	—	5.D

B eredia ez zen aztertu 5. mailan, oraindik oso gela gutxitan ematen bait zen.

Lagina modu aleatorio batez egin zen, %95eko fidagarritasun-maila batekin eta %6 inguruko errore erlatibo margina du. Bi azpilaginez osatua dago: bata orokorra, ondorio nagusiak ateratzeko; eta bestea berezia, zona soziolinguistikoaren analisi kualitatibo baterako.

Guztira 1968 haur ikertu ziren 336 gelatan banatuak, Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publiko pribatu eta ikastoletakoak 1983-84 ikasturtean.

b) Hizkuntz testak

EIFE estudioan, EUSKARA eta GAZTELANIA MAILA neurtzea zen helbururik inportanteenetariko bat. Proiektu honen aitzindari eta erreferentzi puntu garrantzitsu bat, Catalunya-ko «Departament d'Ensenyament»-ek egindako «Quatre anys de catalá a l'escola (1)» deituriko ikerlana izan da.

EIFEko hizkuntz proba batzuk ere katalanen probetan inspiratuak daude, nahiz gero birmoldatuak izan.

(1) «Quatre Anys de Catalá a l'escola». Generalitat de Catalunya. Departament d'Ensenyament. Barcelona 1983.

Proba hauen funtzioa, eredu eta kurtso oso desberdinetako haurren euskara-mailen artean eta bide batez ikertu beharreko talde bakoitzaren barruan diskriminatzea zen .

Horretarako, hizkuntzaren lau oinarrizko trebetasunak neurtu nahi izan dira: ulermena, mintzamena, irakurmena eta idazmena, beti ere eskolagirotik irten gabe.

Euskara-maila oso desberdinak neurtu behar zirenez gero, hizkuntz azpitestak ere zailtasun desberdinetakoak izan dira, ikertu beharreko ikasle-taldeei egokituak.

Hona test bakoitzaren proba edo azpitestak:

TESTAK	EUSKARA 2. maila	EUSKARA 5. maila
A Z P I T E S T A K	Ahozkoaren ulermena I Ahozkoaren ulermena II Ahozkoaren ulermena III Mintzamena I Mintzamena II	Ahozkoaren ulermena I Ahozkoaren ulermena II Ahozkoaren ulermena III Irakurmena I Irakurmena II Idazmena Mintzamena I Mintzamena II

TESTAK	GAZTELANIA 2. maila	GAZTELANIA 5. maila
A Z P I T E S T A K	Comprensión oral I Comprensión oral II Comprensión oral III Expresión oral I Expresión oral II	Comprensión oral I Comprensión oral II Comprensión oral III Lectura I Lectura II Escritura Expresión oral I Expresión oral II

2. mailako haurrek ez zuten idatzi-irakurrizko probarik egin, oraindik ez bait dituzte behar adinbat menderatzen trebetasun hauek.

Euskarazko eta gaztelaniazko testak modu paraleloan eraikiak daude. Proba gehienak pasaketa kolektiboan egin daitezke, mintzamenekoak (eta «expresion oral»ekoak) izan ezik. Hauek banaka pasatzekoak dira. Testa definitiboki finkatu aurretik, pretestak egin ziren, ondoren item eta puntuazioen analisiak eta beharrezko aldaketak burutu zirelarik.

c) *Aldagai psikolinguistiko, soziolinguistiko eta pedagogikoak*

Hizkuntz testen emaitzekin lotzeko asmotan, aldagai psikosoziolinguistiko eta pedagogiko batzuk jaso ziren, gehienak *inkesta soziolinguistiko* baten bitartez.

Aldagaiok ondorengo multzoetan sailkatu ditugu:

1. **ESKOLAREN EZAUGARRIAK:**

Ikastetxe-mota, ikastetxearen tamaina, gelako haur-kopurua, irakaslearen esperientzia urteak...

2. **ESKOLAKO HIZKUNTZ GIROA:**

Ikastetxearen hizkuntz osakera, Gelako haur euskaldunen portzentaia, zenbait jakintzagairen hizkuntza, eskolako materialaren hizkuntza, irakaslearen hizkuntz ezagupidea, irakaslearekiko hizkuntza, ikaskideekiko hizkuntza...

3. **ETXEKO HIZKUNTZ GIROA:**

Gurasoen jatorria, gurasoen euskara-ezagutza, haurraren txikitako hizkuntza, etxearen arteko hizkuntz harremanak, komunikabideak...

4. **INGURUKO HIZKUNTZ GIROA:**

Zona soziolinguistikoa, lagunekiko hizkuntza, helduekikoa...

5. **HIZKUNTZEKIKO ERITZI ETA JARRERAK:**

Euskararekiko jarrera, gaztelaniarekiko jarrera, Hizkuntza politena, hizkuntza maiteena...

6. **HAURRAREN GAITASUN PERTSONALAK:**

Errendimendu eskolarra (irakaslearen eritziz), adimen koefizientea (Catell-en «G» faktorearen testa), hizkuntzen ezaguera (irakaslearen eritziz)...

Badira, garbi dago, jaso ez diren aldagai psikosoziolinguistiko inportanteak (metodologia, maila sozioekonomikoa...), baina honelako inkesta zabal batean planteatzen dituzten jasoketa zailtasunagatik baztertu egin dira oraingoan.

d) *Analisi estatistikoak*

Era askotako lan estatistikoak egin dira. Guztiak ordenadorez, datu-kopuru handi hori erabiltzeko era bakarra bait da irispidean.

Puntuazioen maiztasuna, batezbesteko eta desbiderapenez gain itemen analisia egin da «Anitem» izeneko programaz. Honekin, haurren puntuazioen banakera eta testaren «portaera» aztertu dira.

Hortik aurrerako analisiak, pakete informatiko handiez egin dira, dena E.H.U.ko Leioako Kalkulu Zentroan: kontingentzia taulak eta fidagarritasunak (S.P.S.S. pakete informatikoaz). Osagai nagusien Analisia eta korrespondentzia Anitzen Analisia (S.P.A.D. pakete informatikoaz).

Azkenik, «Bi erdien metodoz» ateratako fidagarritasunak bereziki honetarako egin den programa informatiko bat behar izan du.

e) Interpretazioaren mugak

Era honetako lanetan tentazio handia egon daiteke lortzen diren emaitza eta aurkitzen diren korrelazioetatik besterik gabe konponbide eta kausalitate-efektu zuzenegiak ateratzeko. Estatistikak ez du kausa-efektu arteko harremanbiderik segurtatzen. Eta, ondorioz, idazki honetan eskaintzen diren argibideak zuhurtasun honekin erabili behar dira.

3.4 HIZKUNTZ TESTEN EGOKITASUNA

Erabili diren hizkuntz testak, batezbestean, egokiak direla esan daiteke. Ongi diskriminatu dute ereduaren artean, eta bai talde bakoitzaren barruko sujetuen artean ere.

Hiru eruedetan froga berberak aplikatu zirenez gero, azpittest batzuk, jakina, zail samar edota erraz samar gertatu zaizkie talde batzuri. Hori ezinbestekoa zen. Baina eredu guztietarako daude azpittest egokiak, talde barruan diskriminatzeke balio izan dutenak.

Fidagarritasuna kalkulaterakoan bi erdien metodora jo da. Hau da, testen barne koherentziaren neurriak bilatu dira (hizkuntza, test eta xede-talde diferenteekin funtzionatu denez gero fidagarritasun-indize desberdinak atera behar dira, indize orokor batek ez bait dauka zentzu handirik). Fidagarritasunak azpitaldeetan 0'77tik 0'97ra bitartekoak izan dira. Beraz barne-koherentzia nahikoa dute testok.

Testen baliozkotasuna baieztatzeko, berriz, ikasleek ateratako nota eta irakasleak erizten dien mailaren arteko korrelazioa kalkulatu da.

Korrelazio guztiak positiboak dira. Denak, bat izan ezik, 0'33 eta 0'54 artean dabilta. Honek adierazten du testaren emaitza eta irakaslearen eritzia, batezbeste konbergenteak direla neurri normal batean.

Hala ere A ereduko 2. mailan irakaslearen eritziek eta testeko kalifikazioak zero inguruko korrelazioa dute. Bi arrazoi posible egon daitezke: alde batetik ez testa ez irakaslearen eritzia jasotzeko prestatu zen eskala ez ziren agian egokienak maila eta eredu honetarako; eta bestetik irakasleei beraiei ere oso zail gertatzen zaie hain euskara gutxi dakiten ikasleen artean diskriminatzea.

Nolanahi ere hizkuntzaren aldetik testak izan dezakeen balio-neurria erlatibizatzea komeni da. Hau neurri bat besterik da. Ez ditu, bistan da, hizkuntzaren arlo guztiak neurtzen, eta neurtzen dituenak ere hobeto neurtu ahal izango dira dudarik gabe etorkizunean.

Bestalde esan daiteke euskarazko eta gaztelaniazko testen artean «paralelotasun»-neurri ona lortu dela. Alde batetik eraikuntza, edukin eta zuzenketa-era beretsuak dituztelako eta bestetik zailtasun beretsua eskaintzen dutelako, batak jatorrizko euskaldunentzako, eta besteak jatorrizko gaztelaniazkoentzako, estatistikoki frogatu denez.


4.- TESTEN EMAITZAK

Hizkuntz testak, gorago aipatu denez, azpiprobez osatuak daude. Azpiproba horien puntuazio partzialak bi formularen bidez integratu dira, bat OHOk 2. mailarako eta bestea 5.erako. Ondorioz puntuazio orokor batzuk sortzen direlarik.

Hona hemen 2. mailako batezbestekoak:

	2 A	2 B	2 D
EUSKARA	2	4'6	7'6
GAZTELANIA	7'4	7'6	7'1


1. irudia



5. mailako puntuazioak ez dira 2.gokoekin konparagarriak, bi populazio desberdin direlako eta 5. mailan irakurketa eta idazketa ere neurtu direlako. Hona hemen:

	5 A	5 D
EUSKARA	3'2	7'7
GAZTELANIA	7'5	6'9

2. irudia



Ikus daitekeenez gaztelaniaren ezaguera oso uniformea da eredu guztietan, D eredukoak zertxobait bajuago badaude ere, diferentzia oso txikia da eta hauek ere puntuazio ona lortzen dute.

Euskararen egoera, aldiz, oso bestelakoa da. D ereduan bakarrik dago gaztelaniaren parean; A ereduan oso maila apalean gelditzen da eta B erdibidean dago, baina gaztelaniaz duten kompetentziatik oraindik urrun.

Puntuazio berorien arabera banakerak behatuz ondoko aipamenak egin daitezke, beti ere irakastereduen izakera eta testen osakera kontuan hartuz:

Euskarari dagokionez (3. eta 4. irudiak)

- D ereduko populazioa nahiko modu logikoan banatua dago
- A eredia oso homogeneoa da, sujetu gehienak puntuazio bazu beretsuetan biltzen direlarik
- B eredia oso heterogeneoa da. Oso ezaguera maila desberdineko haurrak ditugu hemen aparteko talde konpakto bat osatu gaberik, askotxo A edo D ereduen eremuan sartzen direlarik.


Gaztelaniari dagokionez (5. eta 6. irudiak)

– Talde guztiek dute banakera nahiko logikoa, lehen esan bezala D eredu a pur bat beheraxeago badago ere.

B eredukoak, A-koen parean daude (zertxobait goraxeago gainera).


3. irudia

Euskarako puntuazioen distribuzioa 2. A, B eta D-n




4. irudia

Euskarako puntuazioen distribuzioa 5. A eta D-n




5. irudia

Gaztelaniako puntuazioen distribuzioa 2. A, B eta D-n



6. irudia

Gaztelaniako puntuazioen distribuzioa 5. A eta D-n



5.- D EREDUA

5.1 DATU DESKRIBATZAILE BATZUK

D irakastereduan irakaskuntza euskaraz egiten da, gaztelania irakasgai hutsa delarik. Inkesta soziolinguistikotik beste zenbait datu bildu dira, eredu honen ikuspegia osatzeko balio dezaketenak.

– Esate baterako, D. eredia ez da zona euskaldun samarretan bakarrik kokatzen. Ikerketan nabarmendu diren bost zona soziolinguistikoetan aurki daiteke aski finkatua.


– Guraso gehienak euskaldunak dira. Amen % 70 inguru gai da euskaraz hitzegiteko. Aitetan piska bat gutxiago, %60 bat.

– Ikastetxe-motari dagokionez ikastetxe gehien-gehienak ikastolak dira. Halere nabaritzen da eredu hau ikastetxe pribatu batzuetara eta batez ere publikoetara hedatzen ari dela, OHO-ko 2. mailan hauen portzentaia handiagoa dago, izan ere, 5. mailan baino.

– Gurasoen % 60 inguru beti euskaraz mintzo zaizkie haurrei (ikus 7.irudia).


7. irudia

Amak haurrarekin erabiltzen duen hizkuntza.



– Baina gurasoen artean hitz egiterakoan beti euskaraz eta gehienetan euskaraz egiten dutenak bilduta ere ez gara iristen % 40ra 5. mailan eta are okerrago % 30era 2. mailan. Erdaraz beti edo gehienetan aritzen dira gurasoen % 50 eta % 60 maila horietan (ikus 8.irudia).

Amak aitarekin erabiltzen duen hizkuntza



– OHO-ko 5. mailako ikaslekoa apur bat euskaldunagoa dela dirudi 2. mailakoa baino. Datu hori aldagai bat baino gehiagotan baieztatzen da.

– Gela-taldeak euskaldun samarrak dira batezbestean. Kasu gehienetan gelaren erdia baino gehiago jatorrizko euskaldunetz osatua dago. Seme-alabak ikastoletara bidaltzen dituzten gurasoak, beraz, euskaldunak dira gehienbat, zona soziolinguistiko erdaldunenean (1. zonan) izan ezik. Beste zonetako haurrek aski etxe-giro nahiko euskaldunetik datoz, ordenamendu guztiz zuzena gertatzen ez bada ere. Adibidez, 3. eta 4. zonetako ikaslekoa oso euskalduna da, nahiz inguruan hainbesteko euskaldun-portzentaia izan ez.

– Eskolako lagunekin, bai jolasaldian, bai kalean, beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenak % 60 inguru dira. Beti edo gehienetan erdaraz aritzen direla aitortzen dutenak, berriz, % 20-25 inguru. Auzoko lagunekin euskararen erabilera jaitsi egiten da %40raino edo, eta gaztelaniarena %45eraino igotzen.

– Euskal Telebista bakarrik ikusten dutenak oso gutxi dira. Baina neurri on batean ikusten dutenak % 71 dira OHO-ko 2. mailan, eta bostgarrenean % 85.

– Euskararekiko agertzen duten jarrera oso-oso positiboa da. Erabat alde agertzen dira. Erdararekiko, aldiz, ez dago adostasunik. Jende-multzo nabariak daude bai aldeko, bai kontrako, bai duda-mudazko jarreretan. Bigarren mailakoek, halere, jarrera txarragoa dute 5. mailakoek baino, agian batzuk oraindik hizkuntza hori guztiz menperatzen ez dutelako.

5.2 FAKTOREEN ERAGINA 2D-n

D irakastereduan, O.H.O.-ko 2. mailan dagoen populazioak homogeneotasun-neurri normala duela esan genezake, puntuazio orokorretan ikus daitekeen moduan (ikus 3.irudia). Batezbestean euskaraz ongi dakitela esan daiteke. Beren puntuazio orokorrak 5aren eta 10aren artean mugitzen dira, gaztelaniadunei beren hizkuntzan gertatzen zaien bezalaxe.

Analisi faktorialaren bidez aztertu da zein ezaugarri eta aldagai dauden puntuazioekin erlazio estuenean. Ondoan emango ditugun ezaugarriok, beraz, talde honetan dauden euskarazko ezaguera alde (txiki) horiek esplikatzeke balio dezakete.

1.- Adimen-koefizientea

Adimen koefiziente baxua haur gutxik dute, baina horiek puntuazio baxuekin daude lotuak. Adimen-koefiziente normal edo altuak aldiz, nahiko puntuazio onekin daude lotuak.

2.- Etxeko hizkuntz giroa

Etxekoen artean erabiltzen den hizkuntza, eta txikitan gurasoekin erabilitakoa bat datoz kasu gehienetan. *Beti euskaraz aritzea eta beti erdaraz aritzea* dira modalitate esanguratsuenak aldagai hauetan. Logikaz gehienetan gaztelaniaz eta are gehiago *beti* egiten dutenak dira testean ere euskarazko puntuazio txarrenak atera izan dituztenak, eta alderantziz.

3.- Errendimendu eskolarra

Oso errendimendu onekoak dira euskaraz ongien dabiltzanak, dudarik gabe. Errendimendu nahiko edo eskasekoek, alderantziz, puntuazio txarrak dituzte batezbestean.

4.- Eskolako lagunekin

Beti gaztelaniaz aritzen direnek euskara-maila kaskarra dute. Aldiz, gehienetan euskaraz aritzen direnak hobeto dabilta.

5.- Hizkuntzekiko jarrerak

Eredu eta maila honetako haur guzti-guztiek dute euskararekiko jarrera ona. Halere, jarrera onena dutenak daude ongien. Erdararekiko jarreretan denetik dago. Ohar gisa esan daiteke euskaraz ongien dakitenak dutela gaztelaniarekiko jarrera txarrena eta alderantziz.

5.3 FAKTOREEN ERAGINA 5D-n

OHO-ko 5. mailan D ereduan dauden haurren puntuazioak aski era normalean banatzen dira gutxi gora-behera, 4 puntuetatik 10era, gaztelaniadunak gaztelaniaz banatzen diren antzera (Ikus 4. irudia). Esan daiteke euskaraz, batezbestean, ongi dakitela.

Dena dela, beren artean agertzen diren puntuazio-diferentziak esplikatzeke honako ezaugarri edo ezaugarri-multzoak aipatu behar dira, analisi faktorialek erakutsi dutenez:

1.- Ikasketetarako ahalmenak.

Errendimendu eskolarrak oso eragin zuzena dauka neurtu den euskara-mailan. Oso errendimendu onekoek puntuazio altuak dituzten bitartean errendimendu bazu samarra dutenek behe-aldera jotzen dute nabarmen-nabarmen.

Honekin lotua egon daitekeen beste aldagaia *adimen-koefizientea* da. Honen eragina ere garbi agertzen da eta zentzu berekoa da.

2.- Etxeko hizkuntz giroa.

Txikitan gurasoekin hitzegindako hizkuntza, eta egunero etxekoan artean erabiltzen dena pisuzko faktoreak dira, batez ere hizkuntza hori beti euskara edo beti erdara bada. Lehenengo kasuan daudenak puntuazio nabarmenki onak ateratzen dituzten bitartean, besteei alderantzizkoa gertatzen zaie.

3.- Ikasgelako hizkuntz giroa.

Garrantzitsua da *gelako euskaldun jatorren portzentaia*. Gela euskaldunetan, (%60tik gora), normala denez, emaitza hobek jasotzen dira. Era berean hobeto daude euskara-mailan *irakasle euskaldunzahar alfabetatua* edota *euskarazko titulazioa* dutenen ikasleak. Arlo honetan sar daiteke baita ere *ikaslideekin erabiltzen den hizkuntza*. Beti erdara erabiltzen dutenak askoz okerrago dabilta. Ongien «gehienetan euskaraz» aritzen direnak dira.

4.- Inguruko hizkuntz giroa.

Zona soziolinguistiko erdaldun-erdaldunean bizi direnak (%10 euskaldun baino gutxiago) ezpairik gabe egoera txarragoan daudela esan daiteke euskara-mailan. Zona euskaldunagoetan, ordea, ez da ageri ordenamendu zuzenik (ondoan 4.zona dago), ikaslegoa, berez, nahiko euskalduna bait da. (Ikus 18.orrialdea: Gela-taldea...).

6.- A EREDUA


6.1. DATU DESKRIBATZAILE BATZUK

Gauza jakina denez A irakastereduan irakaskuntza gaztelaniaz da, euskara asinatura bezala lantzen delarik.

- A eredia zona erdaldunetan kokatzen da batipat (1. eta 2. zonan batez ere).
- Hiri handietan kokatzen da maiz, 50.000 biztanletik gorakoetan.
- Ikastetxe gehienak oso erdaldunak dira, A eredia da nagusi.
- Ikastetxe-motari dagokionez publikoak eta pribatuak dira guztiak. Ikastolarik ez dago.
- Ikastetxeetan, euskara-irakasle batzuk egon arren, beste irakasle gehienak erdaldun soilak edo euskara ikasten ari direnak dira. Erdiak baino gehiagok 10 urtetik gora darama irakaslanean.
- Gurasoen erdia inguru Euskal Herritik kanpora jaiokoak dira. Guraso gehienek (%80-90) ez dute euskara ulertu ere egiten. Seme-alabei erdara hutsean egiten diete %85-95ean (ikus 9.irudia).

9. irudia

Amak haurrarekin erabiltzen duen hizkuntza




– Eskolako edo auzoko lagunekin erdara hutsean mintzo dira A ereduko ikasle ia guzti-guztiak: %93 5. mailan eta %99 2. mailan.

– ETB noiz edo noiz ikusten dute, gehiengoak gutxitan ikusten badu ere (kontuan hartu behar da inkesta hau egin zenean, 1984ean, ETB-K denbora gutxi zeramala martxan).

– Euskararekiko duten jarrera oso positiboa da. Jarrera negatiboetan ez dago praktikoki inor (ikus 10.irudia).

10. irudia

Haurren euskararekiko jarrera



6.2 FAKTOREEN ERAGINA 2A-n

Ikasleen %76a 1, 2 eta 3 puntuen inguruan dago euskara-mailari dagokionez. Banakera nahiko normal batez egin duten proba bakarra, *ahozkoaren ulermena* izan da. Besteak zailegiak gertatu zaizkie orokorki. Badirudi, beraz, hauen euskararen ezaguera esaldi sinpleak ulertzera eta hitz solteak esatera mugatzen dela normalean.

Oso talde homogeenaren aurrean gaude. %3 edo 4 bat euskaldunak direla kontuan hartuz, beste guztien euskara-maila oso baxua da errealitatean batzu eta besteen artean dagoen diferentzia oso handia delarik.

Hona hemen diferentzia honen arrazoi batzuk:

1. Etxeko hizkuntz giroa.

Aurreko baldintza guztiak kontuan harturik, 2.An gehien eragiten duen aldagaia *etxeko hizkuntz giroa* da. Hau, garbi-garbian, euskaldun bakar horien ondorioz gertatzen da. *Gurasoekiko hizkuntza, etxeko artekoa...* dira aldagairik eragingarrienak.

2. Inguruko hizkuntz giroa.

Goikoarekin oso loturik, multzo honetan, *lagunekiko hizkuntza, zona soziolinguistikoa...* dira eraginkorrak.

EIFEn jasotako aldagai askok ez dute signifkaziozirik. Alde batetik erdaldunen taldea oso homogeenoa agertzen da, testak ez bait du behar bezala diskriminatzen haien artean.

Bestetik, euskaldunekiko diferentzia da gehien nabarmentzen dena. Badirudi ezabatuak gelditzen direla aldagai individual gehienak.

«Lehen hizkuntza» gehienentzat gaztelania da. Hala ere euskararekiko jarrera positiboa da orokorki. Jarrera positiboena dutenak hobeto dabilta euskaraz, hain jarrera ona ez dutenekin konparatuta.

6.3 FAKTOREEN ERAGINA 5A-n

Ikasle gehienak (%95) 1, 2, 3 eta 4 puntuen inguruan daude. Funtsean, 5. mailakoen euskara-maila ere hor mugitzen da: esaldi sinpleak ulertzea eta hitz solte edo esaldi sinple-sinpleren bat adierazteko (esan edo idazteko) gai izatea gehienez ere.

Hizkuntza-maila neurtzeko erabili diren testek muga bat jartzen digute. A eredu beheko muturreko talde bat bezala agertzen da. Proba gehienak, zailegiak gertatzen zaizkie. D ereduarekiko (beste muturra) diferentziak izugarriak dira, erabatekoak.

Beti kontuan hartu behar dugu, hori bai bi fenomeno desberdin ditugula hemen:

Alde batetik, 5. Ako ia guztiak jaso diren aldagaien aurrean oso berdintsuak dira. Jaso diren aldagai horiek, apenas erakusten dute inolako eraginik.

Baina, bestetik, badago %5 bat euskaldunetz osatua. Taldetxo hau erabat marginala izan arren, askoz hobeto dabil euskara aldetik eta diferentzia izugarri hori agertzen da jasotako aldagaietan.

Non datza euskaldun hauen eta 5. Ako beste guztien arteko diferentzia?

Dudarik gabe, aldagairik eragingarrietan. Hona inportanteenak:

1.- Etxeko hizkuntz giroa.

Zenbat eta euskara gehiago erabili, euskara-maila hobea lortzen da.

Aldagairik eragingarriena *anai arreben arteko hizkuntza* da. Zenbat eta euskara gehiago erabili, hobe. Eta zenbat eta gaztelania gehiago erabili euskara-maila bajuagoa, noski.

Amarekin txikitan erabilitako hizkuntza ere, eragingarri azaltzen da.

2.- Inguruko hizkuntz giroa.

Auzoko lagunekin erabiltzen den hizkuntza aldagai inportantea da. Era berean, *herriko edo auzoko helduekin* erabiltzen den hizkuntza. Zenbat eta euskara gehiago hobe, eta gaztelaniarekin alderantziz.

Halere, goian esan den bezala, aldagai hauek ez dute erdaldunen artean askorik berezten.

7.- B EREDUA


7.1 DATU DESKRIBATZAILE BATZUK

Eredu hau berriena da. Gaztelania zein euskara edukinak transmititzeko erabiltzen dira.

- Zona soziolinguistiko guztietan zabaldu samarrak dago B eredia, 5.ean izan ezik.
- Ikastetxe-mota guztietan (ikastola, publiko, pribatuak) badaude B ereduko gelak.
- Matematika gaztelaniaz azaltzen da kasu gehienetan. Gizarte-gaietan edo esperientzi arloan euskara zertxobait gehiago erabiltzen da (ikus 11. irudia).

11. irudia

Matematikazko azalpenak zein hizkuntzatan ematen diren



- Material osagarrietan, badirudi idatzizkoak gaztelaniaz dituztela gehienbat eta ikus-entzunezkoak euskaraz.

- Euskararekiko duten jarrera oso positiboa da. A eredukoena baino hobea oraindik, baina ez D eredukoena bezainbat. Gaztelaniarekiko jarrera ere ona dute.


- Gurasoen erdia inguru Euskal Herritik kanpora jaioa da eta %86ak ez du ulertu ere egiten euskara. Honetan nabaria da A ereduarekiko antza.

- Haurren txikitako hizkuntza gaztelania dute %85 batean edo.

- Gelako irakaslearekin jolasgaraian beti edo gehienetan erdaraz hitzegiten dutenak %48 dira. Beti edo gehienetan euskaraz %35. Gainontzekoak bi hizkuntzetan berdintsu (ikus 12. irudia).

12. irudia

Haurrak irakaslearekin gelatik kanpora hitzegitean



- Ikasleen artean ere gaztelaniaz egiten da batipat. (%80-90)
- Erdiak baino gehiagok gutxitan ikusten du ETB.

7.2 FAKTOREEN ERAGINA 2B-n

Puntuazioei dagokienez, haurren %38 1-2-3 puntuetan dago, A ereduko maila berean.

Beste % 38 erdiko maila batean dago, 4-5-6 punturekin.

Falta den % 24a, berriz, D ereduko emaitzen parean kokatzen da, 7-8-9-10 punturekin. (ikus 3. irudia).

Zein da diferentzia handi hauen arrazoia?

Ez dago horretarako faktore bakar batez hitzegiterik baina bistan dago bi edo hiru B ereduren aurrean gaudela emaitzari gagozkiolarik.

Hona, B ereduaren emaitzekin lotura bat duten aldagai garrantzitsuenen aipamena.

1.- Etxeko eta inguruko hizkuntz giroa.

Euskarazko puntuazio altuekin fuertean lotuta dauden aldagaiak, *familia, ingurua eta ama-hizkuntzarenak* dira. Etxeko hizkuntza euskara izateak berez garrantzitzen du puntuazio altu bat. Aldagai hauek eragin handia dute irakasle, ikastetxe eta abarren gaitetik. Baina B ereduko gehienek ez dakite euskara etxetik.

Aldagai hauek alde batera utzirik beste aldagai batzuk dira inportanteenak, eta aipatuko ditugun aldagai hauen arabera gauzatzen dira «B» eredu desberdinak.

Bigarren mailako hauek, ikastetxean zentratzen dira.

2.- Eskolako hizkuntz giroa.

Irakasleekin gelatik kanpora erabiltzen den hizkuntza. Batez ere irakaslearekin beti euskaraz mintzatzen badira, emaitza hobekak dituzte.

Irakasleekiko harremanetan erabiltzen den hizkuntza badirudi ikastetxearen euskaltasun orokor baten ispilu dela.

Gela barruari dagokionez, garrantzi handia du *Matematika zein hizkuntzatan esplikatzen den*. Kontsultarako material idatziaren hizkuntzak ere garrantzi maila beretsua du.

3.- Eskolaren ezaugarriak.

Ikastetxe-mota (publikoa, pribatua edo ikastola) eta *Ikastetxearen hizkuntz osakera* desberdinen arabera alde haundiak nabarmentzen dira batetik bestera. Ikuspegi horretatik, batezbesteko puntuaziorik altuenak ikastoletan ageri dira, eta bajuenak ikastetxe publikoetan.

4.- Beste batzuk.

Aldagai indibidualek, bestalde, badute euskarazko puntuazioekiko lotura garbi bat, *adimen-koefizientea* eta *errendimendu eskolarra* lekuko. Hala ere, lehenago aipatu direnen azpitik daude eragingarritasun aldetik.

7.3 KORRESPONDENTZIA ANITZEN ANALISIA


Esandako guztiaren arabera B eredu diferenteak soma daitezke. Anlisi Faktorial baten bidez (korrespondentzia anitzak) «azpiero» horien ezaugarriarik inportanteenak deskriba daitezke. (ikus 13.irudia).

Puntuazio bakoitzaren inguruan, aldagai batzuk ageri dira, «lotura» bat adieraziz.

Orohar, puntuazio oso altuak (8 eta batez ere 9), inguru eta etxeko hizkuntza euskara izateari lotuta daude. Baina egoera honetan ikasleen % 4 bat bakarrik aurkitzen da. Haur hauek D eredukoak dirudite eta ikastolekin daude lotuen.

13. irudia

Testaren puntuazioen eta zenbait aldagairen proiektzioa. 2B



Erdi-pareko emaitzak ere, 6-7-8 puntuazioak, ikastoletan ematen dira batik bat. Berauen barruan ere antolaketa desberdinak somatzen dira.

6-7-8 puntuazioekin erlazionaturik *irakasleekin gelatik kanpora* erabiltzen den hizkuntza eta *matematika zein gizarte* gaiak emateko erabiltzen den hizkuntza agertzen dira. Horrek, azken finean euskarari ematen zaion denbora adierazten du. Zenbat eta euskara gehiago, puntuazio altuagoak lortzen dira.

Beste aldera jo ezker, 1, 2, 3, 4 -eta agian 5- puntuetara hain zuzen, batez ere ikastetxe publikoekin lotzen direla ikus dezakegu. A ereduaren antzeko puntuazioetan mugitzen gara 3tik behera. Ikastetxe pribatuen artean denetik aurki daiteke, oso heterogeneoak dira.

Hemen eragiten duten faktoreak: *inguru eta etxeko hizkuntza gaztelania izatea* alde batetik. Bestetik, *irakasleekiko harremanak gelatik kanpora gazteleraz izatea* eta gela barruan *matematika eta gizarte-gaiak erdara hutsean ematea*.

Badute puntuazioek, maila apalago batean, irakaslearen (tutorearen) *euskara ezagupidearekin* zerikusi zuzenik. Euskaldun alfabetatua izanez gero, goiko puntuazioekin lotzen da. Gero euskaldunberria dator, piska bat atzerago; eta, azkenik, euskara oso gutxi menderatzen dutenak.

8.- LABURPENEA

8.1 ALDAGAI-MULTZOEN GARRANTZIA

Ondoko bi koadroetan aldagai-multzoak talde desberdinetan duten eragina agertzen da modu grafikoan. Eragina izartxo bidez adierazten da, talde bakoitzeko aldagai-multzo eragingarrienak bi izartxo dituztelarik. Nolanahi ere koadro hauek interpretatzeko orduan beharrezkoa da taldez talde eman diren azalpenak kontuan izatea, han xeheago esplikatzen bait dira han-hemenkako gora-beherak.

Euskarari buruz, orohar, argi dago *etxeko hizkuntz giroari* loturiko aldagaiak eredu eta ikasturte guztietan oso eragingarri direla. Eta honekin batera *inguruko hizkuntz giroaren* ingurukoak. Eskualde eta familia euskaldunean jaiotzeak, berez, banaketa oso inportantea sortzen du, batez ere A eta B eruedetan. D eruedan aldiz *haurraren gaitasun pertsonalek* jokatzen dute paper nagusia, ereduak berak jaiotzatiko hizkuntz baldintzapenak gainditzeko aukera ematen bait du. Adierazgarria da baita ere A eruedan *eskolak eta gaitasun pertsonalek* agertzen duten eraginik eza.

Eskolaren hizkuntz giroaren eragina D eta batez ere B eruedan agertzen da: Gelaren eta eskolaren euskaltasuna dira hortxe giltzarri; hau da, euskarari eremu horietan ematen zaion lekua eta garrantzia.

ALDAGAI-MULTZOEN ERAGINA

EUSKARA

- ** Eragin nagusia
- * Eragin handia

	2.A	5.A	2.B	2.D	5.D
1.- ESKOLAREN EZAUGARRIAK			*		
2.- ESKOLAKO HIZKUNTZ GIROA			**	*	*
3.- ETXEKO HIZKUNTZ GIROA	**	**	**	**	**
4.- INGURUKO HIZKUNTZ GIROA	**	**	*		*
5.- HIZKUNTZEKIKO JARRERAK					
6.- GAITASUN PERTSONALAK			*	**	**

GAZTELANIA

	2.A	5.A	2.B	2.D	5.D
1.- ESKOLAREN EZAUGARRIAK					
2.- ESKOLAKO HIZKUNTZ GIROA				*	
3.- ETXEKO HIZKUNTZ GIROA				**	*
4.- INGURUKO HIZKUNTZ GIROA	*		*	**	*
5.- HIZKUNTZEKIKO JARRERAK		*			
6.- GAITASUN PERTSONALAK	**	**	**	*	**

Gaztelaniaren ezagutzan eragiten duten aldagai-multzoetan distribuzio desberdina aurkitzen dugu, dudarik gabe, hizkuntza normalizatu bati dagokiona eta horretxegatik euskararekiko konparaziorako interesgarria.

Oso pisu handia hartzen dute hemen haurren *gaitasun pertsonalek*, hau da, *errendimendu eskolarrak* eta *adimen koefizienteak*, batipat O.H.O.-ko 5. mailan (euskarari D ereduan gertatzen zaion bezalaxe).

Neurri txikiagoan eragiten dute *inguruko hizkuntz giroari* loturiko aldagaiak, eta gutxixeago *etxe*ko *hizkuntz giroaren* arlokoek eta batipat D ereduan.

Nolanahi ere, gaztelaniari dagokionez, jatorrizko euskaldunen eta gaztelaniadunen arteko diferentziak, ez dira oso nabarmenak, adin hauetarako (7-11 urte) denak bait dira gaztelaniadunak.

Azkenik ezin da aipatu gabe utzi taldekako analisietan ezinbestez integratu gabe gelditu diren, baina populazio guztiaren azterketan ezin ukatuzko pisua duten bi aldagai: *haurren adina* eta *irakasteredua*. Lehenengoak bai gaztelaniaren bai euskararen ikaskuntz prozeduran eragiten du. Dudarik ez dago 10 urteko haurrek 7 urtekoek baino dexente gehiago dakitela.

Irakastereduak ere bi hizkuntzetan eragiten du, baina batez ere eta modu guztiz determinantean euskararengan. Edozein eredutako haurrek nahikoa gaztelania dakite; baina euskara aldetik diferentzia izugarriak daude, agerikoa denez.